Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

229 zenbakia
2021 **azaroa**

Prest!



BERBETAN: **KEPA DIEGUEZ BARAHONA** HIZKUNTZALARIA ETA IRAKASLEA

ERREPORTAJEA: **SAN INAZIOKO MODULU PSIKOSOZIALA** BARKUA: **20 URTE ETA PREST!**

TOKIKOM











Sustatzailea

Herbaizu euskara elkartea

Babesleak

Intxixu Ikastola

txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

erraldoien ondalan Konpartsa

BASKale

Bihotz Alri Fondoa Prentsa Taldea

Erraun Taldea Deustu

Elorri Bertso Eskola

Deustuko Jai Batzordea

S.D. Deusto

Deustuko Gazte Lokala

zirikatzen!

eaj pnv deustu

Egunsentia Eskaut Taldea 1982tik

ernai Deustua

Pare Hautsi Patriarkatua Kateak

Deustuko Gazte Asanblada

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Bilbao

Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

229 zenbakia
2021eko azaroa

aurkibidea

Atxarte Salvador Navarro - Angel Prieto Fidalgo	**Iritzia**	4
Sandy McCarthy	**Gurera etorriak**	5

e **erreportajea**
San Inazioko modulu psikosoziala
Urtero legez, azaroan, Euskal Herriko eta munduko kaleak puntu morez bete dira. Baina emakumeen kontrako indarkeriak egunerokoa izaten jarraitzen du. Deustu-San Inazioko modulu psikosozialak ia 40 urte daramatza eraso matxistak jasan dituzten emakumeekin lanean. Kanpaina estetiko eta diskurtso hutsen gainetik, sarea, benetako sentsibilizazioa eta baliabideak behar direla uste dute.
6

Intxixu ikastola	**Eskolak**	10
Marisorkien ibilerak (I)	**Behin batean**	12
Ahotsak altxatuz! PARE Deustuko Gazte Talde Feministaren dinamika berria	**Artikulua**	14

b **berbetan**
KEPA DIEGUEZ BARAHONArekin
Eguraldiaren inguruan euskaraz jasota dagoen herri lexikoa goitik behera aztertu eta doktorego tesia argitaratu berri du Kepa Dieguez Barahona filologoak. Munduan ez omen dago lanik hizkuntza baten lexiko etnometeorologiko guztia aztertu duenik. Bestalde, 2004tik Etnomet blogean eguraldiaren inguruko berbak eta iruzkinak argitaratzen ditu sarean.
16

Brasso Lantegia (1956)	**Irudiak berbetan**	21

HEZKUNTZA Hezkuntza biziberritzeko lanean
PREST!-EKO URTEURRENA 20 urte eta PREST!
PINTXODROMOA Odolki ferreroa, mango-coulisa eta sagar aliolia
KULTUR TXOTX Maddi Argote Ledesma eta Hodei Munduate Etxeberria

barkua bete berba
24

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01



Atxarte Salvador Navarro
Hego-haizearen zurrunbiloan

13/13

Dagoeneko dena esanda dago azken epaiketa politikoaren inguruan. Euskaldunen kontrako enegarren epaiketa, bortizkeriarik gabeko terrorismoa leporatuta, oximorona, bai. Oraingoan, gainera, oximorona estaltzeko balio zuten armak isilik daudela hamarkada bat baino gehiago bete direnean. Duela hamar urte indarrean zeuden terrorismo guztiak, ordea, sasoian daude, indarberrituta asko. Zelako ironia.

Eskubide urraketan eraikitako eta bermerik gabeko enegarren epaiketa; Oraingoan, gainera, estatuko zerbitzu sekretuek, eta beraz, mozorrorik gabeko estatuko estolderiak abiatutako prozedura. Tortura basatiak, espetxealdiak Euskal Herritik urrun eta bizi baldintzarik gogorrenetan. Urteetan epaiketaren zain egon beharra, pairamen horretan bizitza ere galdu arte. Akusatuek ez ezik, euren etxekoek ere jasan dute hori guztia. Biribiltzeko, komunikabideek epaiketako zenbait une tamalgarri bezain beldurgarri erakutsi dizkigute. Esaterako, "horrek zuri ez dizu axola" moztu zionean epaimahaiko presidenteak epaitutako abokatuetako bati, azken hitza baliatuta, salatu nahi izan zuenean Ministerio Fiskalak ETA gaur egun oraindik existitzen delako falazian oinarritu duela akusazioa.

Justiziarik ez dugu espero, ez baita posible. Nerea, Saioa, Juan Mari, Julen, Iker, Jon, Arantza eta Naia, oso-osorik bete duzuen kondenarik gabeko zigorra ezin da erreparatu. Orain absoluzioa besterik ezin da etorri, injustizia handiagoa, sakonagoa eta mingarriagoa izan ez dadin, behintzat. Besarkada bana.

Angel Prieto Fidalgo
Ikerlaria



Gurasoak eta teknologiaren erabilera

Mugikorra eskuartean edukitzea ohikoa bihurtu da. Whatsapp mezuak bidali, mezu elektronikoak erantzun, jokoekin denbora pasatu eta abar. Guraso askok seme-alabekin jolasean dauden bitartean telefonoa ere erabili ohi dute. Jatetxe edota taberna bateko terrazara besterik ez duzu begiratu behar seme-alabekin jaten zein hizketan daudenean gurasoek telefonoa erabiltzen dutela konturatzeko. Nola asaldatuko dira seme-alabari mugikorraren erabilera mugatzeko unea heltzen denean?

Era berean, sare sozialak gaur egungo argazki bildumak bihurtu dira. Norberak egindako bidaien zein planen argazkiak sareetan partekatzeaz gain, seme-alaben argazkiak ere sareratzen dituzte. Gainera, nahiz eta seme-alabak horrelako erabaki bat hartzeko behar beste adina izan, gehienetan umeari ez diote baimenik ere eskatzen.

Adituek diote sareratzen ditugun argazkiak ez direla erraz desagertzen. Gurasoak horren jakitun izango balira, agian ez lituzkete seme-alaben hainbeste argazki argitaratuko. Haien seme-alabek *influencer* izan nahi dutenean, zer pentsatuko ote dute?

Haurrek eta nerabeek mugikorra eta sare sozialak erabiltzeko duten era kezkagarria bilakatu da guraso askorentzako. Hala ere, aita-ama gehienek ez dute teknologia berrien erabilera zaintzen haien seme-alaben aurrean. Baldintza bakarra ez izan arren, nerabeen IKTen erabilera on baterako, gurasoek telefonoa erabiltzeko duten era ereduzkoa izan beharko luke.



Sandy McCarthy

Jatorria: Tegucigalpa (Honduras)
Bizitokia: San Inazio
Lanbidea: Diseinatzaile grafikoa

“Euskal Herrian bizitzeko euskara ikastea beharrezkoa dela iruditzen zait”

Testua: Prest!

Deustuko Matxintxu AEK Euskaltegian euskara klaseetara joaten hasi da Sandy, hizkuntzak eskaintzen dizkigun aldaera eta esanahiak harrigarriak iruditzen zaizkiolako. Lau urte daramatza Euskal Herrian bizitzen eta hainbat proiektutan parte hartzeko denbora izan duela erakutsi digu.

Duela zenbat etorri zinen Euskal Herrira?
Komunikazio sozialaren inguruko master bat ikastera etorri nintzen Hondurasetik duela lau urte, 2017an. Masterra amaitu nuenean doktoregoa hemen egitea erabaki nuen, baina oraindik ez dut hasi. Hala ere nire bikotea ezagutu nuenean San Inazio auzoan egonkortzea erabaki genuen.

Zer da Euskal Herrian gehien gustatzen zaizuna?
Kostaldea orokorrean asko gustuko dut. Nire herririk gogokoena Elantxobe da, itsasoko uraren kolorea eta bertako aldapak oso adierazgarriak iruditzen zaizkit. Aldi berean nire bikotea Ondarroakoa da eta askotan joaten gara bertara, bertako Radixu irrati librean saio bat egiten dugu, Neukol du izena.

Zeren inguruan hitz egiten duzue?
Eskubide zibilengan eragina izan duten gertaera historikoen ingurukoa da eta horretarako musika protesta eta historia tartekatzen ditugu. Zuzenekoak igandeetan egiten ditugun arren, irratsaioak Radixu irratiko webgunean entzungai egoten dira podcast formatuan.

Beste proiekturen batean parte hartzen duzu?
Bai, Batikumba batukadako partaidea naiz. Bilboko jendea dago baina taldea osatzen dugun gehienok atzerritarrak gara. Samba Reggae musika estiloan oinarrituta, danborra jotzen dugu adierazpen kultural eta inklusibo gisa. Era berean aisialdirako, gizarte harremanetarako eta ikaskuntza bateraturako espazio alternatibo bat eskaintzea da gure helburu nagusia.

Zenbatero biltzen zarete?
Astean birritan biltzen gara entseguak egiteko eta noizbehinka boloak egitera ere irteten gara, duela gutxi Berriz herrian egon ginen.

Euskara ikasten ari zara, ezta?
Bai, Matxintxu AEK euskaltegira joaten naiz euskara ikastera. Orain A2 mailan nago.

Zergatik erabaki duzu euskara ikastea?
Euskal Herrian bizi naizenez hemengo hizkuntza ikastea beharrezkoa dela iruditzen zait. Oso hizkuntza interesgarria da hitz askok duten esanahiagatik. Badakit adibidez otsaila hitzak ‘otsoen hila’ esan nahi duela.

Hondurasera joan ohi zara?
Aurreko urtean joan nahi nuen baina Koronabirusak nire plan guztiak eten zituen.

Zer duzu faltan?
Familia eta lagunak batez ere. Honduraseko kaosa ere faltan botatzen dut, Bilbon egunean zehar lasaitasun handia dago.

Itzultzeko asmoa duzu?
Gustatuko litzaidake Hondurasera itzultzea, familia eta lagunak ikusteko batez ere. Hala ere oraindik ez dut ezer erabaki.



Emakume gazteekin maiatzean egindako topaketa.

MODULU PSIKOSOZIALERA INDARKERIA MATXISTAGATIK HURBILTZEN DEN EMAKUME KOPURUA BIKOIZTUTA

Urtero legez, azaroan, Euskal Herriko eta munduko kaleak puntu morez bete dira. Baina emakumeen kontrako indarkeriak egunerokoa izaten jarraitzen du. Deustu-San Inazioko modulu psikosozialak ia 40 urte daramatza eraso matxistak jasan dituzten emakumeekin lanean. Kanpaina estetiko eta diskurtso hutsen gainetik, sarea, benetako sentsibilizazioa eta baliabideak behar direla uste dute.

Testua: Nerea Olaziregi **Irudiak:** Deustu-San Inazioko modulu psikosoziala

"Une honetan indarkeria matxistagatik hurbiltzen den emakume kopurua bikoiztu egin da eta gero eta gazteagoak dira. Segurtasun eta berdintasun faltsua saldu zaie. Ematen du ahalduduta egonez gero, ez zaizula ezer gertatuko eta ez da horrela. Aske bizi ahal izateko zertaz babestu behar zaren jakin behar duzu eta horren aurrean erantzun bat emateko gai izan". Carmen Garcia Deustu-San Inazioko Modulu Psikosozialeko psikologoaren hitzak dira. Itziar Canterarekin batera, arreta psikologikoa eskaintzen die genero zapalkuntza eta bortizkeria jasaten dituzten emakumeei.

"Kanpainak kontu estetiko batean bilakatu dira", azpimarratu du. "Inditexek ere feminismoa saltzen du baina benetako sentsibilizazioa eta baliabideak falta dira". Errealitatetik aldenduta dauden politikak ikusten ditu. Eta egunerokoan lan egitearen garrantzia azpimarratu du: "eskoletan, etxeetan, lantokietan, auzoetan, kalean...". Horretan hasi ziren Moduluan duela ia 40 urte eta horretan jarraitzen dute Deustualdeko ikastetxe, eragile sozial, elkarte eta talde feministekin batera. Carmenen esanetan, "bortizkeria matxista saihesteko eta honi aurre egiteko tresnarik eraginkorrena saretzea da, hots, komunitatea eraikitzea". Eta horretarako, besteak beste, auzoetan autodefentsa ikastaroak



Bizinahi auzo gunean emandako autodefentsa tailerra.

antolatzen dituzte, eskola eta institutuetan, sentsibilizazio tailerrak – baita mutilentzat ere beraien pribilegioen inguruan hausnar dezaten- eta Moduluan "Neuk erabaki" ekimenaren bitartez, sare sozialetan indarkeria matxista nola prebenitu lantzen da. Gainera, hilean behin, neska gazteentzako topaketa bat antolatzen dute. Eta astearte arratsaldeetan gazteei espazio berezia eskaintzen diete sexu osasun eta ugalketa osasunaren inguruko informazio eta arreta jaso dezaten.

Errealitatea gertutik ezagutzen dute bertako profesionalek eta San Inazioko Agoitz plazan duten lokalera hurbiltzen den emakume bakoitzaren behar zehatzei erantzuna ematen saiatzen dira. Arreta psikologikoaz gain, arreta juridikoa, sexu osasun eta ugalketa osasuna eta sentsibilizazioa eta prebentzioa eskaintzen dituzte. Aldi berean, mendekotasunak dituzten pertsonentzako zerbitzuak eta haur eta gazteen babesgabetasun kasuei arreta psikologikoa ere bideratzen dituzte.

Erasoak jasan dituzten emakume gehienak familia medikuak, Udalaren berdintasun sailak edo gizarte zerbitzuek bideratutakoak direla azaldu dute, "kasu guztiak ezberdinak dira, adibidez gauez eraso bat jasan duen gaztea; bizitza osoan tratu txarrak pairatu izan dituen adineko emakumea; denbora luzez epaiketa baten zain egon ondoren etxe barik geratu dena; haurdunaldia eten nahi duena; txikitan sexu erasoak jasan zituena..."



"Bortizkeria matxista saihesteko eta honi aurre egiteko tresnarik eraginkorrena saretzea da"

Baina gehienek badute zerbait komunean: isolamendua. Carmenen esanetan, “askotan emakumeak errudun sentitzen hasten dira, guztiaren arduradun... . Egoera horretan zure buruarekin duzun elkarrizketa etengabea da, ia zoratzeraino eta hortik ateratzea oso zaila da. Isolamendua apurtzen den unetik, irtenbideak agertzen dira”. Prozesua gogorra izan ohi da eta zailtasun handiak ditu, are gehiago, arazo ekonomikoak daudenean, “baina aliatuak berehala agertzen dira eta sarean dena errazagoa da”.

Datuak hortxe daude. Erasoen %13 besterik ez dira kalean eta ezezagunekin gertatzen; indarkeria ekintza gehienak etxe, familia, lagun talde edo antzeko inguruetan gertatzen dira. Eta eraso horietako asko ez dira salatzen. “Badira ere frogatu ezin diren indarkeriak”, dio Carmenek. “Kasu horietan zer salatuko duzu?. Urteak daramatzala zu iraintzen? Nagusikeriatan? Zu makurrarazten?”. Eta “diskurtso hutsekin” kontuz ibil-





tzeko ohartarazi digu. “Zuk ahal duzu... eta holakoak. Batzuetan bai baina besteetan ez.”


Badira ere ezkutuan geratzen diren indarkeriak, izan ere, gure sexu osasun eta ugalketa osasun zerbitzuan ez dira inondik inora mutilak ezta gizonak ageri. Ardura eta erantzukizun falta dagoela iruditzen zaio arreta eskaintzen duen Moduluko medikuari. Bestalde, gertakari honek askotan beste indarkeria handiagoak ere ditu atzean (gehiegikeriak, mespretxuak,...).

Zaintza partekatuaren eta etxe-habien gaiak ere mahai gainean jarri ditu Carmenek. Gai horrekin “gol bat” sartu digutela uste du. Guraso biak egoerari aurre egiteko gai direnean egokia dela iruditzen zaio baina kasu askotan ez da horrela izaten. “Ama askok lana topatzeko zailtasunak dituzte eta dirulaguntzarik gabe bizi behar dira etxehabian bere bikote ohia bertan erroldatuta









Apirilean egindako topaketa.

dagoelako". Eta galderak botatzen ditu. "Banatu aurretik nor izan da zaintza bere gain hartu duena? Nor lanean murrizketak eskatu dituena?".

Hazkuntzaren "hiper-sentsibilizazioaren ondorioz", amek presio handia jasaten dutela uste du. "Jendartearen dispositibo guztiak jartzen dira martxan haur horiekin zer gertatzen den ikusteko. Eta bai, haurrak babestu behar dira baina amei laguntza eskaintzen eta ez ordea etengabe epaitzen. Baliabideak falta dira, etxebizitza oinarrizkoena baita".

Etorkizunari begira, ez dago oso baikor: "Berdintasun faltsu batean bizi gara eta gauzak ez dira horrenbeste aldatu. Maitasun erromantikoa eta familia nuklearraren idealak nagusi dira oraindik. Asko dira familiagatik banatzen ez diren emakumeak edota bakardadeari beldur diotenak".

Hala ere, gaur egun, genero kontua zalantzan jartzen ari dela uste du. Badira bitartasuna hausten eta genero jariakorra aldarrikatzen ari direnak. Era berean, pribilegioak zalantzan jartzeko gai diren gizonezko gehiago dagoela pentsatu nahi du, baina "zaila da prestigio egoera horri borondatez uko egitea. Eraldaketa genero disidentziak edo emakumeok ekarriko dugu".

JOLASTOKIA GURE ERARA

Intxixu ikastolan denbora asko ibili gara jolastokia esparru hezitzaile bihurtu nahian. Horrela, inguruko eskolak ere bisitatu ditugu bertako proiektuak ezagutzeko asmoz eta horietatik abiatuta hainbat proposamen gauzatu ditugu.



Testua eta argazkiak: Intxixu ikastola

Hartutako erabakien artean, besteak beste, futbolera non eta noiz jokatzea, jolastokiko beste espazio batzuk atontzea, jolasteko materialak prestatu eta ateratzea, arduraz jokatzea, eta arduradunak izendatzea daude. Horrekin guztiarekin, 2019an lortu genituen Hezkuntza Sailari urte luzez eskatutako toki estaliak, gure jolastokiari probetxu handiena ateratzeko.



Alabaina, pandemia ostera arte itxaron behar izan dugu espazio horiek erabiltzeko eta esan behar dugu oso lagungarriak direla!

Alde batetik, Haur Hezkuntzako sarrerako teilatua luzatu dugu eta orain leku txiki baina baliagarria bihurtu da. Gehienbat eskola sarrera eta irteera uneetarako edota zenbait jolasetarako erabiltzen dugu. Bestetik, egun ikastolako “harribitxia” bihurtu den aterpea eraiki dute errekara begira. Azken hau atsedenaldietarako eta heziketa fisikoa egiteko erabiltzen dugu batez ere.

Koronabirusaren ondorioz, jolas txandak ondo bereizi ditugu haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikasleen artean. Pandemia garaian, gure helburua ikasle burbuilak ondo zaintzea izan zen eta horretarako espazio gehiago behar genuen. Hori dela eta, Haur Hezkuntzako ikasleak 10:30etik 11:00etara irteten dira jolastokira eta ostean, 11:30ak arte, Lehen Hezkuntzakoak joaten dira. Abantailak ikusita, ikasturte amaieran egindako hausnarketa batean



irakasleek aho batez onartu genuen ikasturte berrian antolaketa berdinarekin jarraitzea.

Egunotan jolastokiko balio hezitzailearen eta honen antolakuntzaren gainean hausnartzen egon gara Txatxilipurdi taldeko kideekin batera. Lehenik eta behin hainbat eremu azpimarratu ditugu: segurtasuna eta arriskua, mugimendua eta lasaitasuna eta azkenik sozializazioa eta bakardadea. Ezarritako eremu horiek hainbat toki diseinatzeko bidea eskaini digute; korrika egiteko, eskalatzeko edota salto egiteko lekuak adibidez.
Hauek hornitzeko lehenik eta behin toki finko eta material desberdinak izan behar ditugu: harriak, gurpilak, sokak, pilotak, harea, berdegunea… . Bigarrenik jolas batzuen bitartez gure patioko planoaren gainean amesten dugun jolastokia diseinatzera animatu gaituzte.

Jolastoki hezitzaile bat egiteak hausnarketa sakona dakar, denon erantzun aberats eta adostua nahi badugu. Ez dira gutxi aurkitutako zailtasunak, izan ere, ikastolan Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara bitarteko ikasleak daude. Gainera, bi zentro ezberdinekoak dira eta hortaz, sentsibilitate ezberdina izan dezaketela ulertzen dugu. Bidea hasita dago, eta aurrera jarraitu beharko dugu jolastokia guztiona eta guztiontzako izan dadin.





MARISORKIEN IBILERAK (I)

Lege Zaharraren amaieran eta aro kapitalistaren hastapenetan ohikoak ziren Deustuan emakume langileen joan-etorriak. Atal honetan eta hurrengoetan sorkia buruan hara-hona ibiltzen zirenen gomuta berpiztuko dugu.

Testua: Hektor Ortega

Kargerak, sorkia eta zarana buruan, Abandoibarrako kaian lanean. 1894. Txema Luzuriagaren bilduma.



Aurreko batean (PREST! 162. zenbakia) gure iraganaldiko emakume langileak hartu genituen hizpide. Han azaldu zen azken 500 urteotako ogibide multzo nabarra: merkatari, tabernari, garraiolari, eraikuntzan peoi, zirgari, zamaketari, baserritar, irakasle, idazkari, zerbitzari, banketxe eta lantegietako behargin, kontrabandista...
Jatorri desberdinak izan arren, sardinerak, esne-saltzaileak eta bendejerak ogibide sorta batekoak ziren, jeneroaren garraioa eta salmenta egiten zuten eta. Emakume hauek, beste askok bezala, sorki izeneko mantarra buru gainean jarri eta, haren gainean, zarana (otzara) paratzen zuten. Zaranetan arrainak, ortuariak edo are esne-txantxilak ere ipini ohi zituzten.

Esne-saltzaileen eta bendejeren kasuetan, ohikoa izaten zen astoak erabiltzea. Arrain-saltzaileek ere, behinik behin Bermeo,

Mundaka edo Ondarroa bezalako lekuetatik abiatzen baziren. Hain zen horrela ezen holako emakume guzti hauei astodun esan izan zaien. Otzarak ere desberdinak ziren, eginkizunaren arabera: zapalagoak sardinerenak, sakonagoak astotzarak, handiagoak, txikerragoak...

Salgaia aldean hartuta, andre haiek Bilbora joaten ziren, bertako kaleetan eta plazan saltzera. Orduan, orain bezala, Bilboko azoka plaza zaharrean zegoen, egun Erriberako merkatua dagoen orubean. Kontuan hartu 1892. urtera arte hantxe zegoela Bilboko Udaletxea ere, San Anton elizari atxikita. Horregatik dio kopla zaharrak:

"Banengon, nengoanean
Bilboko Kontzejupean
hantxe preguntau nenduen
sagarrak zegan zirean"

Sorkia eta zarana buruan ibiltzen ziren, halaber, kargerak, Olabeaga (alegia, Deustuko Erribera) eta Bilboko kaietan zamaketari lanak egiten zituzten emakumeak. Horien otzarak ikatzaz, adreiluz, bakailaoz eta antzeko salgaiz bete ohi ziren. Eta sorkia buruan baina zaran barik hara-hona ibiltzen ziren Bilboko kalderapekoak, iturrietan galdara handiak urez bete eta, buruaren gainean jarrita, oreka sinesgaitzari eutsiz, etxeetara eramaten zituzten otseinak.

Marisorkien estigma

Deustua herriarekin lotura estua eduki zuen Emiliano Arriaga (1844-1919) musikagile eta gaztelaniazko idazleak, Bilboko berbak batu baitzituen 1886. urtean idatzitako *Lexicón obra* ospetsuan. Hor ageri zaigu marisorki, honako azalpen honekin: *"se decía en tono despreciativo de las calderapecos o de toda aquella que se emplea en conducir cargas, para lo cual lleva siempre el sorqui en la cabeza".* Oraindik ere erabiltzen da Bizkaiko herri batzuetan marisorki berba emakumea zentzugabekoa eta txoriburua dela adierazteko.

Ezin dugu, oraingoz behinik behin, zehaztu noiztik datorren konnotazio ezkor hori. Ezin dugu jakin, halaber, zergatik zabaldu zen emakume langile haiei burla egiteko ohitura. Baina argi dago Lege Zaharraren amaieran, kapitalismoaren garapenaren neurriko produkzioharreman berriak ezarri zituztenean, emakumearen etxetik kanpoko lana estigmatizatuta gelditu zela.

Harrigarria ere bada, ogibide guzti horiek zaharrak zirelako. Egin kontu: kargerak Luis Paret Alcazarren 1786ko margolan batean ageri dira, Bilboko Areatzan zamaketa lanak egiten. Baina aro kapitalista berrian andrea etxekoandre izan behar zen, batez ere.

Sara Hidalgo historialariak nabarmendu duenez, Bizkaiko lurraldean langile mugimenduak berak ere onartu egin zuen sistema berriak ezarritako dikotomia hura (lan arloan, andreak etxean; gizonak, lantegian eta kalean) eta espazio publikoan behar egiten zuten emakumeen aurkako herra eta lotsa zabaldu zuen. Marisorkien aurkako erasoa goitik eta behetik etorri zen.

kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

PARE DEUSTUKO GAZTE TALDE FEMINISTAREN AHOTSAK ALTXATUZ DINAMIKA

Egunero pairatzen ditugun erasoak salatzeko tresna da PARE Deustuko Gazte Talde Feministak martxan jarri duen "Ahotsak altxatuz!" dinamika. Helburua, ikusezin geratzen diren edozein eraso publiko egitea da, era anonimoan.

Testua eta irudiak: PARE Deustuko Gazte Talde Feminista

Pareko kideok azken boladan auzoan gertatu diren eraso anitzen jakitun gara. Egunero pairatzen dugun indarkeriaz gain, erasoak jai eta gau eremuan areagotzen ari direla badakigu. Horrela, kalean, etxean eta are gehiago osasun egoerak areagotu dituen hainbat eta hainbat espazioetan (zaintza eremuak, lana...) erasotuak gara, eta jazartuak izaten jarraitzen dugu hainbat eta hainbat momentu eta txoko ezberdinetan.

Harreman eredu osasuntsuen alde apustu egiten dugu, baita zaintza erdigunean jartzearen alde ere. Kaleak, jaiak, plazak eta gauak gureak ere direlako eta horiek ere gozatu nahi ditugulako. Horregatik, beharrezkoa ikusi dugu erasoak lau haizeetara zabalduko dituen "Ahotsak Altxatuz" tresna martxan jartzea.

> Zer da Ahotsak Altxatuz?
Ikusezin geratzen ari diren erasoak publiko egiteko tresna anonimoa da.

> Publiko egitearekin zer esan nahi dugu?
Gure sare sozialak eta kaleak erabiliko ditugula kartel eta argitalpenen bitartez eraso hauen berri emateko.

> Anonimoa dela esateak zer esan nahi du?
Inkesta honi erantzunez ez dela zure nortasunaren berri emango. Bakoitzaren esku dago zer kontatu. Horregatik ere, erantzunak ez dira nahitaezkoak, norberak erabakitzen du zer kontatu eta zer ez.


Ahotsak Altxatuz gure arteko babesa sendotzeko eta saretzeko erabili nahi dugu. Beraz, edozein laguntza behar baduzu bidaliguzu mezu bat gure sare sozialetara edo helbide elektroniko honetara: deustuparekiderantz@gmail.com. Zurekin harremanetan jarriko gara ahal bezain laster.



IKASTURTE HONETAKO HELBURUAK AURKEZTU DITU GORA DEUSTU DINAMIKAK

Azaroaren 3an Gora Deustu dinamikaren aurkezpen asanblada antolatu genuen Bidarte udaltegian. Taldearen ibilbidea azaltzeaz gain, dinamikaren lan filosofia eta jardun esparruak auzokide eta elkarte desberdinekin partekatu genituen.

Testua: Gora Deustu **Argazkia:** Ecuador Etxea



Gora Deusturen aurkezpena Bidarte Udaltegian.

Ekimen hau 2020ko martxoan koronabirusak eragindako itxialdiaren ondorioz sortu zela esan dezakegu. Izan ere, hasiera batean auzoan une hartan zeuden behar nagusiei aurre egiteko boluntarioz osatutako sare bat sortu zen, Deustuko Elkartasun Sarea izenekoa.

Hasieran elikagaien eta sendagaien erosketak egiten genituen arren, itxialdia luzatu ahala zailtasunak ere areagotu ziren. Hortaz, hainbat izapideetarako aholkularitza taldea martxan jarri eta etxean euskaraz hitz egiteko aukerarik ez duten umeekin mintzapraktika birtualak ere antolatu genituen.

Horrela, pandemiaren bigarren olatuan sartu ginen eta hausnarketa prozesu baten ostean, dinamikari izena aldatzearekin batera bi lan esparru identifikatu genituen: zerbitzu publikoak eta eskubide sozialak defendatzeko esparrua batetik eta pandemiak arriskuan jarritako bizitza komunitarioa bultzatzeko zeregina bestetik. Horren adibide dira otsailetik aurrera Deustuko anbulatorioko gaueko EAG zerbitzua ixtearen aurka deitutako mobilizazioak. Bestalde, martxoan merkataritza txikia, ostalaritza eta Deustuko komunitatearen lana babesteko manifestu bat aurkeztu genuen.

Udaltegian egindako aurkezpenari jarraiki, bertan zerbitzu publiko eta eskubide sozialekin zerikusia duten hainbat aldarrikapen plazaratu ditugu, besteak beste, Osakidetzako lehen mailako arreta indartzea, anbulatorioetan aurrez aurreko hitzorduak berreskuratzea, administrazioetan aurretiko hitzordua kentzea… gainera banku zerbitzuen desagerpena eta argi indarraren prezioaren igoera salatu ditugu ere.

Halaber, ikasturte honetan murrizketak gutxitzearekin batera, kaleko bizitza berreskuratzeko unea dela uste dugu eta horretarako, udaberrian Tomate Eguna izeneko ekimena antolatzeko asmoa daukagu. Egun berezi honen helburu nagusia auzoko talde ezberdinen parte hartzea susta-tzea da, hauen ekintzak kalera atera ahal izateko eta Deustuko sare asoziatibo eta komunitarioaren garrantzia agerian jartzeko.

berbetan

KEPA DIEGUEZ BARAHONArekin

Hizkuntzalaria eta irakaslea

“Euskal lexiko etnometeorologikoak

Eguraldiaren inguruan euskaraz jasota dagoen herri lexikoa goitik behera aztertu eta doktorego tesia argitaratu berri du Kepa Dieguez Barahona filologoak. Munduan ez omen dago lanik hizkuntza baten lexiko etnometeorologiko guztia aztertu duenik. Bestalde, 2004tik Etnomet blogean eguraldiaren inguruko berbak eta iruzkinak argitaratzen ditu sarean.



Testua: Jone Gartzia Gerra
Argazkiak: Ecuador Etxea

edozein egoerari egiten dio aurre”

Euskal lexiko etnometeorologikoaren azterketa mardula argitaratu berri duzu. Nola hasi zinen honekin?

Hau oso kontu zaharra da. Txikitatik izan dut eguraldiarekiko grina: beti gustatu izan zait euria, txingorra... Normalean eguraldi txarra esaten dena, niretzat ona da. Haizea ez hainbeste, eta gorrotatzen ditut beroa, sargoria etab. Kazetaritza eta Euskal Filologia ikasitakoa naiz eta, Euskal Filologiako 4. mailan lan baterako Azkueren hiztegia hartu eta eguraldiarekin lotura zuten hitz guztiak atera nituen. Banan banan hitz guztiak begiratu, eta fenomeno atmosferikoen arabera sailkatu nituen. Irakasleak oso ondo zegoela esan zidan, tesia horren inguruan egin nezakeela, baina hor geratu zen.

Eta ondoren?

Doktorego ikastaroak egin nituen eta lana aprobetxatzeko inkesta batzuk egiten hasi nintzen, hitzak biltzen, liburuetan herri lexikoiak begiratzen… apurka-apurka. Deustuko Unibertsitatean hasi nintzen tesia egiten eta gero Gasteizko Fakultatera pasatu nintzen. Gotzon Aurrekoetxeari proposatu nion nire tesi zuzendaria izateko, orain dela 19 urte. Berak esan zidan hiztegi hutsak ez duela balio tesi bezala, datuak hartu behar direla, sailkatu, interpretatu eta ondorioak atera; eta ez genekien zein marko teoriko erabili hori egiteko. Asko irakurtzen hasi nintzen: antropologia linguistikoaz, hizkuntzalaritza antropologikoaz, etnolinguistikaz, meteorologiaz, linguistika kognitiboaz... Orduan marko teorikoa etnolinguistikarena izango zela erabaki nuen: hizkuntzalaritza kulturala, lexikoa eta kulturaren arteko lotura... Eta metodologia bat sortuko nuen dena sailkatu eta tesia egiteko.

Zein informazio iturri erabili dituzu?

Lehendabizi, Azkueren hiztegia. Gero, Euskaltzaindiak Euskal Herriko hizkeren atlasaren CD eta datu guztiak utzi zizkidan, argitaratu baino lehen. 20.000 datu zeuden, eta urtebete eman nuen hori husten eta nik sortutako datutegi batean sartzen. Nire datutegi propioa sortu dut, 6.100 hitz ditu orain. Gero, Orotariko Euskal Hiztegia sarean publikatu zutenean oso erabilgarria izan zitzaidan. Iñaki Gaminderen herri lexikoiak eta sakabanatuta dauden herri lexikoiak ere erabili ditut. Bestalde, 3 urtez egunero Garan eguraldi iragarpenak egiten dituen Joxe Landaren testuak irakurri eta berba interesgarriak atera nituen.

Eta sailkatzeko metodologia bat ere sortu duzu.

Ni euskararen irakaskuntzan nabil. Garai hartan nahiko pil-pilean zegoen syllabus nozionala, eta iruditu zitzaidan erabiltzen genituen nozioak baliagarriak zirela eguraldiaren lexikoa sailkatzeko. Proba batzuk egin nituen eta ondo geratu zen.

“Ondarezko hitzak erabili beharrean asmatu egiten dira”

berbetan

KEPA DIEGUEZ BARAHONArekin

▷ ▷ SAKONEAN

“Hego-haizearen inguruko 100 bat hitz izango ditut bilduta”

‘Eguraldi txar’ garaian gaude, zure gogokoena. Garai honetan, zein hitz duzu atsegin?

Adibidez, afruntua. Uribe-kostako berba da, aldi berean haizea eta euria egiten duela adierazten du. Gero, udazkenean, urrian eta azaroan, gehienbat hego-haizeak jotzen du hemen. Hego-haizearen inguruko 100 bat hitz izango ditut bilduta, bakoitzak gauza bat adierazten du, bada, Getxo aldean herriko haizea esaten zaio.

Eta, orokorrean, baduzu hitz kutunen bat?

Bagurrina asko gustatzen zait, enbata, ere, eta mailegua da. Kuku izerdia, lei negarra... aipatu dituzunak dira gogokoenak. Abasusa ere, txingorra Bizkaia aldean. Edo, Bizkaia aldean ihintza eta garoa bereizten direla: ihintza lurrean dagoena da, baina landareetan gertatzen den hezetasuna garoa da. Leiaren inguruko berbak: lei beltza, lei zuria, antzigarra... Nik denak maite ditut! Maileguen artean asko gustatzen zait Hernani aldean euria barra-barra egiten duenean erabiltzen duten ‘elementak’. Horrekin hitz jolasak egiten dituzte. Laparra ere asko gustatzen zait: oskarbiko hodei bakarra. Edo, lodi eta mehe adjektiboen bitartez eguraldia bereizteko ohitura: euri mehea esaten da, euri xehea... loditasuna eta mehetasuna oso polita da, ikusgarria. Ortziri buruzko kontuak ere atsegin ditut.



Sei nozio orokor nagusi daude: izakiak, kantitatea, kalitatea, jarduerak, denbora eta espazioa; eta hitzak sailkatzeko kontzeptuak eta kategoriak daude. Hitz guztiak horren arabera eta arloka sailkatu nituen, fenomeno atmosferikoen arabera. Hasieran itsasoa, denborak eta zerua aztertuta nituen, baina gero tesitik kendu nituen, gehiegi izango zelakoan. Azkenean, fenomeno atmosferikoetan bakarrik zentratu nintzen. Lanean Azkuek asmatutako ostagi hitza erabiltzen dut fenomeno atmosferikoak izendatzeko. Berrikuntza metodologian, sailkapenean eta interpretatzeko moduan dago, eta hor hainbat jakintzak egiten dute bat.

Nola islatzen da hori?

Hamaika ostagi aztertu ditut metodologia horren arabera. Sailkatu ondoren, interpretatzeko nik asmatutako metodologia etnolinguistiko bat erabili dut: zelan islatzen den lexikoan kultura. Eta gero ondorioak atera ditut. 500 orrialde. Baina hasieran 1.000 eta piku nituen idatzita.

Zeintzuk dira atera dituzun ondorioak?

Ondorioetako bat da euskal lexiko etnometeorologikoak edozein egoerari egiten diola aurre, eta ez badago, askotan maileguak hartu dituela. Hitzak sortzeko euskal hiztuna lehenengo eta behin bere inguruaz baliatu da, bere gorputzaz, eta gero animaliez, objektuez, gero eta urrunago, eta sinbolismo berezia erabili du.

Bestalde, lexikoaren bitartez ikusten da zein izan den klimaren bilakaera hemen. Adibidez, kostalde euskaldun osoan, Getxotik Baionaraino, hitzak daude elur-jausia esateko, 90 hitz inguru osotara, eta bakoitzak sinbolismo desberdin bat du. Izotz burruntzia esateko ere hitz asko daude. Adibidez, Mungialdean lei negarra deitzen diote, edo kandelaren negarra.

Beste ondorio bat da lexikoa sinbolis-

moz eta metaforaz beteta dagoela. Hainbat gauza naturari, baserriari edo nekazaritzari lotutakoak dira. Adibidez, Kortezubin euri langarrari kuku izerdia deitzen diote, kukuak ez duelako batere izerdirik egiten arrautzak erruteko, beste txori batzuek zaintzen dizkiotelako.

Beste bat izan daiteke gaur egun ez dela lexiko berria sortzen, kalkoak baizik. Adibidez: zerua urdin dago. Hori kalko hutsa da, euskaraz zeruak kolore bakarra dauka: gorria. Esan behar dugu oskarbi dagoela, ez dagoela lainorik. EITBn askotan esaten dute, urdinguneak daude, eta hori ez da existitzen euskaraz. Ondarezko hitzak erabili beharrean asmatu egiten dira.

Beste bat, euriari lotutako lexikoa dela txapelduna; ia 1.100 hitz ditut bilduta euriaren inguruan. Hurrengoa haizeena da, 900 bat hitz. Batzuetan fenomenoen arteko hitz elkarketak sortzen dira: bere baitan nozio bat baino gehiago biltzen dituztenak. Aipatu ditugun euria eta haizea aldi berean ari direla adierazteko, Bizkaian afrontua esaten dugu. Horri olofrasia esaten zaio, eta euskal lexikoak adibide asko ditu.

Gaineratzeko, euskaraz hitz elkarketa pila bat dago. Etimologiarekin kontu handia izan behar da, jende askok zientzia fikzioa egiten baitu, baina, garbia bada, antzinako kultur gertakizun baten zantzua edo aztarna izan dezakegu. Demagun, ostadarra, 'ortziaren adarra'. Aipatu, niretzako ortzia ez dela Jainkoa, zerua baino ez. Nafarroan ostotsa esaten diote trumoiaren hotsari, ortziaren hotsa. Etimologia interesgarria da baina garbia denean, asmakizunik egin gabe.

Aipatu duzu sarri hitzak asmatzen ditugula gureak erabili beharrean. Bizirik al dago aztertu duzun lexikoa?

Nik bildu ditudan hitz guztiak ez dira leku bakar batean erabiltzen, eta ez dut galdetu herriz herri ea erabiltzen diren. Batzuk 90eko hamarkadan jasotakoak dira, eta informanteak zaharrak ziren. Baina, Euskaltzaindiak herriz herriko ikerlan horretan oso zorrotz jokatzen zuen, eta hitz bat sartzeko gutxienez jende multzo handi batek erabili behar zuen, erabilera bermatuta egoteko. Egia da, batzuetan hitz bat erabiltzeari uzten diogu fenomenoa ez delako gehiago gertatzen eta belaunaldiz belaunaldi galdu egiten dugu.

Zein izan da lanaren helburua?

Euskal lexiko etnometeorologikoaren bitartez euskal hiztunaren komunitatearen mundu ikuskeraz jabetu ahal izatea, gizatalde baten egitura kontzeptualak eraikitzea lexikoaren esanahi sinbolikoa aztertuz. Baina hau orain dela hilabete bat idatzi nuen, dena amaituta.

Gustura geratu zara?

Bai, erditze-lan itzela izan da. Ez nuen uste amaituko nuenik. Orain, hau dena jakinda, pentsatzen dut beste era batean egingo nukeela. Urriaren 1ean egin nuen defentsa, eta oso gustura egon nintzen. Oso nota ona jarri didate, oso pozik nago.

Bestalde, 2004tik Etnomet bloga duzu martxan. Zertarako?

Sasoi hartan tesia egiten hasita nengoen, eta blogak modan jarri ziren. Pentsatu nuen lortzen nituen hitz batzuk idaztea jendea parte hartzera animatu zedin. Hasieran jendeak idazten zidan, eta saltsa izateko eta hitz batzuen berri emateko erabiltzen nuen. Gero, apurka-apurka idazteari utzi nion. 700 sarrera inguru egongo dira, eta asko interesgarriak.

Tesia aurkeztuta, hemen bukatuko da lana?

Ez. Tesiaren aurkezpenean esan zidaten, hau zabaltzen jarraitu behar dudala, artikulu asko atera daitezkeela hemendik, lana modu masiboan argitaratu... Proiektu asko ditut buruan jarraitzeko, eta bakoitzak bere ikuspegia eskatzen du. Erdi izoztuta daukat erabili dudan corpusa, horrekin hiztegitxo bat egin daiteke, adibidez. Edo, tesitik kanpo utzi ditudan atalak artikulu bihurtu eta argitaratu... Inoiz ikastaroren bat edo masterren bat suertatuko balitz etnolinguistikaren inguruan, parte hartuko nuke.

"Batzuetan hitz bat erabiltzeari uzten diogu fenomenoa ez delako gehiago gertatzen eta belaunaldiz belaunaldi galdu egiten dugu"

Deustoarrak abesbatza kantari bila

Kantari taldea handitu nahian dabil Deustoarrak abesbatza. Batez ere bigarren tenoreak, baritonoak eta baxuak behar dituztela azaldu du bertako kidea den Robertok. Behe soinuak gailentzen diren abesbatza izanik, gizonak bilatzen dituzte, ahal dela kantu esperientziarekin. Entseguak astelehen eta asteazkenetan egiten dituzte arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara bitartean, Blas de Otero kaleko 8. zenbakian duten egoitzan. Hasiera batean Deustoarrak abesbatza "San Felizisimoko abesbatza" izenarekin eratu zen, Deustuko Erriberako parrokiako San Pauloren Abesbatza zaharraren oinordeko gisa. Abesbatzan parte hartu nahi izatekotan idatzi *deustoarrakabesbatza@yahoo.es* helbidera edo Whatsapp mezu bat 650 75 71 67 zenbakira.

Javier Viar deustuarra hil da

Joan den urriaren 28an zendu zen 15 urtez Bilboko Arte Ederren Museoko zuzendari izandako Javier Viar Olloqui, 75 urte zituela. Museoko zuzendari izan baino lehen Rafael Ruiz Balerdi eta Vicente Ameztoy margolarien eta Eduardo Chillida eskultorearen inguruko erakusketetan komisariotza lanak egin izanagatik nabarmendu zen. Halaber, Arte Ederren Museoa handitzearen alde egin zuen. Deusturekin izandako harremanaren ondorioz PREST! aldizkariko 92. zenbakian elkarrizketatu genuen. Viarrek urte luzez mantendu zuen Rafaela Ybarra kaleko 35. zenbakian zegoen familiaren farmazia. Halaber, oso ezaguna zen egun Hizkuntza Eskola dagoen tokian honen familiak zuen txaleta, baita teilatuan zuen haize-orratza, baserritar eta animalia irudiekin.

Ukabilketan euskaraz

Euskarazko boxeo saioak emango ditu Danel Abando deustuarrak Begoñako Udaltegian abenduaren 4an eta 11n. Doako saioak izango dira eta edozein ezagutza maila duten gazteei zuzenduta daude. Ekimena nolatan sortu zen galdetuta, Danel Abandok azaldu du euskararen erabilera areagotzeko erronkan bere aletxoa jarri nahi zuela, nondik eta bera hobekien moldatzen den arlotik: "Azkenaldian boxeoa modan dago, eta gero eta jende gehiago dabil probatzeko gogoz. Bilbo hiri oso erdalduna izanik, garrantzitsua iruditzen zait gazteentzako eskaintza erakargarria egotea euskaraz, hizkuntzarekin beste modu batean harremanetan jarri ahal izateko eta ez dadin mugatu eskolara eta obligaziozko kontuetara". Izena emateko nahiz zalantzak galdetzeko, *ukabilketan@gmail.com* helbidera idatzi besterik ez da egin behar.







Intxixun gurasoen euskara batzordea sortu dute

Ikasleek euskaraz hitz egiteko duten zailtasuna da gaur egun euskararen gainean dagoen kezka handienetariko bat. Gabezia horretaz jabetuta abiatu dute Intxixu Ikatolako gurasoek Euskara Batzordea, "gure seme-alaben artean euskararen erabilera handitzeko ikastetxearen aldetik zenbait neurri har daitezkeela onartu genuen, alabaina, hobekuntza tarterik handiena guraso euskaldunen hizkuntza ohituretan eraginda lortuko genuela jabetu ginen, euskaldun garen gurasook, gure ikastolako haurrentzako eredu izateaz gain, euskara gelatik kanpo erabiltzeko eragile ere izan gaitezkeelako". Hori dela eta, Intxixu ikastola euskararentzako arnasgune bilakatzeko helburuarekin hasi dute gurasoek ibilbide hau eta gainera euskara sustatzeko borondatea erakutsi duten elkarteekin harremanak estutuko dituztela iragarri dute, hauen hitzetan "gure seme-alabek aisialdiko euskarazko jarduera ugariagoak eskuragarri izan ditzaten".





Arantza Lizarraldek lagatako argazkia.

Urtea: 1956

Txema Luzuriaga

Irudi honetan Luis Power kalea eta Torre Madariagako Araba kaleko sarrera ikus ditzakegu. Goialdean Madariaga etorbidean kokatuta zegoen Brasso lantegia ageri da. Azken honek etorbidearen zati handi bat hartzen zuen, gaur egun Deustuko Merkatua dagoen lekuraino heltzen baitzen. Brasso lantegian kromoaren, kobrearen eta altzairu herdoilgaitzaren zikinkeria kentzeko metal leuntzaileak lantzen zituzten. Bestalde, Ramon y Cajal kaleko 45. zenbakian Sociedad Española de Material de Aireación, S. A. enpresa zegoen eta bertan meategietarako eta obra publikoetarako material osagarriak lantzen zituzten.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnona: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez euskara zerbitzua
Probatu herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Nola sentitzen dira merkatari eta auzokideak segurtasunari dagokionean?



Poppi denda
Madariaga etorbidea 28

Orain arte zorionez ez dut ezustekorik izan. Lantokia Deustuko erdigunean izanda seguruago sentitzen naiz.



Rosa Fruta-denda
Blas de Otero 30

Oso seguru sentitzen naiz.



Banfi 94 tabako-denda
Blas de Otero 50

Dendan izandako lapurretaren batengatik epaiketak ditut egiteke. Hala ere ez dut inoiz beldurrik sentitu.



Aurelio Sedano
Deustu

Seguru sentitzen naiz, beste edozein tokitan bezala. Badakit lapur asko dabiltzala kaletik baina nik ez dut segurtasun falta sentitzen.



Amalur denda
Blas de Otero 15

Dendaren sarrera nahiko luzea denez, zaila da lehen begiradan nor sartzen den ikustea eta ondorioz lapurreta asko izan ohi ditugu.



Iban Izkara
Abasolo (Uribarri)

Nik ez dut beldurrik sentitzen ezta Libanon ere. Uste dut Deustu Bilboko auzorik seguruenetarikoa dela.

>> HEZKUNTZA

HEZKUNTZA BIZIBERRITZEKO LANEAN

Software librean oinarritzen diren tresnak erabilita, hezkuntza, elkarte zein merkataritza suspertzeko proiektuak burutzeko sortu zuten Elkartenet Hezkuntza Elkartea 2019ko ekainean. Egoitza ofiziala Bilboko Harrobia ikastolan dagoen arren, tailerra Julio Urquijo kaleko 1. zenbakian daukate. Bertara hurbildu gara elkartea hobeto ezagutzeko asmoz.

Testua: PREST! **Argazkiak:** Elkartenet Elkartea

Elkartenetek Deustun duen tailerrean sartu eta deigarria egin zaigu hainbeste ordenagailu pilatuta ikustea. Bertan daude Jabi, Inhar, Joaquin eta Mohamed bakoitza bere zereginetara. Baina zer dela eta hainbeste ordenagailu?

Arrakala digitalari aurre egiteko eta aldi berean, ekonomia zirkularreko dinamikak babesteko, elkarteak gaur egun martxan duen proiekturik garrantzitsuena da KimuDigitalak. Labur azalduta, HH5, LH1 eta LH2ko ikasleen artean IKTak sartzea du xede. Horiek horrela, software librean garatutako aplikazioen bidez eta ordenagailuen berrerabilera oinarri, hainbat eskoletan Txoko Teknologikoa sortzeko lanetan ari dira.

Ordenagailuak ikasgeletan txertatzen hasteak helburu bikoitza du Inharren arabera, alde batetik ikasleek tresna teknologikoekin sortzen duten harremana ikasgela barruan egitea eta bestetik era ludikoan ez ezik, ordenagailua ikasteko eta lan egiteko tresna bezala ezagutzea. Ezarritako helburuak lortzeko, Txiki Linux sistema eragilea izango da bidelagun nagusia, besteak beste, ikasleek behar dituzten programa didaktiko guztiak dagoeneko ordenagailuan instalatuta daudelako, sareko eduki "desegokietara" sartzeko arriskurik gabe.

Eskolei utzitako ordenagailuen jatorriari dagokionez beste erakunde batzuek baztertutako ekipo informatikoak berreskuratzen ditu elkarteak. 2019ko abendutik 2020ko urtarrilera bitartean hain zuzen ere, Osakidetzak baztertutako 21 ordenagailu jaso eta Txiki Linux sistema eragilea ezarri ostean, Arangoitiko eta Miribillako eskoletan banatu zituzten. Osakidetzako ekipo informatikoez gain, Deustuko Unibertsitateak eta Reciclanet elkarteak baztertutako ordenagailuak ere jaso zituzten 2020. urtean.

Halaber, ekipoak eskoletara eramateaz aparte, sareko tresna ezberdinen inguruko formakuntzak eskaintzen dizkiete irakasle zein gurasoei, Bizkaiko ikastetxeetako guraso elkarte sarearekin batera antolatuta. Azaroaren 29an adibidez, Arangoitiko familientzako Txiki Linux sistema eragilearen inguruko aurkezpena antolatu zuten bertako eskolan, familiei joko didaktikoen berri emateko.

Basamorturaino

Agharas kolektiboarekin batera eta Amazig herriko erakundeekin elkarlanean, 'Haur ikasgela digitalak desertuan' izeneko proiektua ere sortu dute, eta eginbide nagusia Marokoko hego-ekialdera berrerabilitako ekipo informatikoak eramatea da. Horrela, arreta haur eta gazteen hezkuntzan jarrita Amazig herriaren garapenean lagundu nahi dutela azaldu du Jabik.



Hardware tailerra.



http:// sarekada

Euskara - KORRIKAren aurkezpen bideoa

2022ko martxoaren 31n hasita apirilaren 10era arte, Amurrio eta Donostia lotuko ditu 22. KORRIKAk. AEKren arabera, “euskara hitzetik ekintzetara eramateko unea da” eta horregatik “HITZEKIN” da hautatutako leloa. Eskaneatu QR kodea aurkezpen bideoa ikusteko!

Ikus entzunezkoak – Pilula Gorria

Lord Draugr youtuber euskaldunak Twitch plataforman egiten den euskarazko lehenetariko saioa estreinatu zuen azaroaren 17an. Hamabostero argitaratuko diren elkarrizketak izango dira eta lehen gonbidatua Aitziber Garmendia aktorea izan da. Berria egunkariak azaldu duenez “elkarrizketatuei hamar galdera zirikatzaile egingo zaizkie: horietatik zortzik pilula gorriak izan beharko dute; hau da, erantzun egin beharko dira. Bi galderatan pilula urdina hartu ahalko dute, eta ez erantzun: txanda-pasa egin, alegia”. Hurrengo gonbidatuak Nogen eta Chill Mafia musika taldeetako kideak izango dira.

Webgunea “.eus” izanez gero, itzultzaile automatikoa doan

Elhuyarrek sortutako Elia Itzultzaile Automatikoa doan erabili ahalko dute webgunea .eus duten plataforma edo webguneek. Adimen artifizialean eta sare neuronaletan oinarrituta dagoen plugina da Elia Itzultzaile automatikoa eta soilik WordPress plataforman garatutako webguneetan funtzionatzen du. Oso erraza da plugina instalatzea, izan ere formulario bat bete eta plugina bera deskargatzea besterik ez da egin behar. Instalazioa egiteko laguntzagida ere argitaratu du Elhuyarrek.



>> PREST!-EKO URTEURRENA

20 URTE ETA PREST!

Martxoan 20 urte bete genituen, 222. zenbakia ateratzearekin batera. Marka polita, benetan ederra, azaroaren 29tik abenduaren 3ra arte ospatuko duguna. 2001eko martxoan kaleratu ginen lehendabiziz, Berbaizuk, eta bertako lantalde batek bultzatuta, hain zuzen. Helburua argi geneukan: maiztasunari, kalitateari eta edukiei eutsiko zien hilabetekari bat plazaratzea. Esan barik doa lortu egin dutela, lortu egin dugula, erronkak erronka edota krisiak krisia, bizirik gaudelako. Ez da makala, non eta Deustualde bezalako gure erdaldunean, 20 urte bete ditugulako, lantaldeak, elkarteak eta babesleek bultzatuta; osatzen ari garen ariguneak babestuta.

Hori dela-eta, gogotik ospatuko dugu. Hori dela-eta, egutegi itzela prestatu dugu. 20 urte eta PREST! gaudelako. 20 urte eta bizi-bizirik gaudelako. Ospa dezagun PREST! aldizkaria, baita Deustualdean osatzen ari garen arigunea ere. Astelehenean, Deustu zaharrari so egin diogu Hektor Ortega historialaria eta PREST kidearen eskutik San Inazioko aintzineko baserri zaharrak ezagutzeko aukera izango dugulako. Asteazkenean, kazetaritza izango dugu hizpide Müllerenean, All the president´s men filma ikusita. Agian ez gara Robert Redford edota Washington Post, baina tokian tokiko hedabideek primizia handiak iragarri ditzakete. Ostegunean, Mikel eta Esti Markez kantu-kantari izango dira Salesianos ikastetxeko aretoan. Sarrerak prezio herrikoian jarri ditugu, 7€tan, antzokia bete nahi dugulako. Berbaizun, Bordatxon eta San Inazioko Euskararen Etxean eskura izango dituzue. Ez itxaron azken momentura arte!

Euskaren Eguna dela-eta, egitarau oparoa antolatu dugu Berbaizu eta Matxingorri Gazte Konpartsarekin batera (zer izango ginateke babesle eta laguntzaile barik?!). 18:30ean gazteentzako hitzaldia egongo da Gazte Lokalean Euskal Herrian Euskarazeko kideen eskutik. Dena ondo, dena formal, baina zer falta zaigu urtebetetze bat behar bezala ospatzeko? Bada, parranda apur bat! Gazte-gazte eta sasoian gaudela-eta, ordu berean Bihotz Alaik antolatutako kalejira abiatuko dugu, gorputza astintzeko. Amaieran, argazki erraldoia egingo dugu Frontoian, beraz, dotore-dotore etorri beharko zarete. Ostean, Bordatxo tabernatik abiatuko dugu kantu-poteoa Kantugintzaren eskutik. Eztarriak gogotik urratuko ditugu! Amaitzeko, Oinutsik erromeriaren kontzertua izango dugu Deustuko Gazte Lokalean 22:00etatik aurrera, “non hago ze larretan?” buiaka kantatzen amaitzeko. Plan ona, ezta?

Bada, horixe guztia antolatu dugu bizirik gaudela ospatzeko, gazte-gazteak garela gogorarazteko eta aurrera jarraituko dugula adierazteko. Bai, zera, hori, galduko duzu?



20 urte ta gora PREST!



Astelehena, azaroak 29 - San Inazioko anbulategia

18:00 **Ibilbidea: *San Inazioko baserri zaharrak***
Hektor Ortegaren eskutik

Asteazkena, abenduak 1 - Mullerrenea

19:30 **Proiekzioa: *All the president´s men***

Osteguna, abenduak 2 - Salesianos Ikastetxeko antzokia

20:00 **Kontzertua: *Mikel eta Esti Markez***
Sarrera 7€ | Non eskuratu? Berbaizu Euskara Elkartea, Bordatxo eta Euskararen etxea

Ostirala, abenduak 3 - Euskararen eguna

18:30 **Gazteentzako hitzaldia: *Euskarak independentzia, independentziak euskara***
Euskal Herrian euskaraz eragilearen eskutik

18:30 **Dantza kalejira Iruña kaletik abiatuta**
Bihotz Alai taldearen eskutik

19:30 **Argazki erradoia Deustuko frontoian. Ekarri zure banderola!**

20:00 **Kantu poteoa Deustuko Tabernetatik**
Bordatxotik abiatuta

22:00 **Kontzertua Deustuko Gazte Lokalean: *Oinutsik Erromeria***

Prest! Berbaizu euskara elkartea



PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Odolki ferreroa, mango-coulisa eta sagar aliolia

Irailean ospatu den Deustuko XI. Pintxo lehiaketako garailea izan da Madariaga 33 taberna. Azaroko zenbakian beraz, bertako Gorka eta Andreearen laguntzaz pintxo irabazlea hobeto ezagutzera hurbildu gara.

Zailtasun maila: erreza

Egiteko denbora: 20 minutu

Prezioa: 1,85 euro

Berezitasuna: pintxoak duen forma

Kontu batzuk

Duela sei urte zabaldu zuten Gorkak eta Andreeak Madariaga 33 taberna. Geroztik hirutan izan dira Deustuko Pintxo lehiaketan garaile, 2015ean, 2020an eta aurten, 2021ean. Goizetan giro lasaia dago bertan, arratsaldeetan ordea terraza handia izanik, gazte zein heldu kuadrilla asko garagardoa edatera etorri ohi direla azaldu digute. Tabernako barra pintxoz beteta izateaz gain, asteburuetan egiten dituzten txibierroak dira tabernaren beste berezitasunetako bat. Larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan eska daitezke.



MADARIAGA 33 KAFETEGIA

Madariaga etorbidea, 33
Astean zehar 08:00etatik 23:00etara
Asteburuetan 09:00etatik 00:00etara

944 47 45 95

OSAGAIAK

Odolostea
Porrua
Mangoa
Sagarra
Berakatza
Won Ton orriak

Zelan egin?

Lehenik eta behin, odolostea, mangoa eta porrua zatitu behar dira. Jarraian, hiru osagaiak zatituta daudenean zartagin batean elkartu eta su txikian erregosi. Prest daudenean Won Ton orrietan sartu eta bonboi itxura eman behar zaio. Amaitzeko orria ondo itxi eta frijigailuan sartu. Bestetik, sagar aliolia egiteko berakatza eta sagarra txikitu behar dira, saltsa forma eman arte. Platerean, sagar aliolia odolki ferreroaren azpian jarri behar da.

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA
Tfnoa: 94 447 45 00
BORDATXO JATETXEA
San Pedro plazako frontoiaren atzean



ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?


AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa





MADDI ARGOTE LEDESMA
Dantzaria

OHOLTZARI OMENALDIA

Maitia, bizitzak ekarritako opari gozo hau *pozez agurtzen det.* Berriro ere *zure etorrera* itxarongo dut. Aspaldi *nere bihotza pilpil aurkitzen* ez dela, baina itxaroidazu, laster abian jarriko da *zu ikustean,* zu ikutzean, zu sentitzean... .
Zoriontsu egin izan nauzu zurekin dantzatu izan naizen bakoitzean eta *maiteki* bizi izan ditut egin izan ditugun solasaldi guztiak. *Dantzatuko det laster,* zugatik, niregatik, zurekin eta nirekin, eta horrela, atzo azken *agurra* izan zena, bihar zorion agurra izango da. *Hi,* zarenagatik, dantzatuko dizut omenaldirik *goxo eta ederrena.*

Murrixka eta lau arinak, horiek izan dira aspaldi ezagutu genituen pausuak. *Biraka,* jauzika, irristaka... bidea egin genuen. *Bihotzez zuretzat egindako* guzti hori behar dugu plazaratu, jendeak uler dezan zeinen ederra den kolore beltzeko lur plastikodun baten gainean dantzatzea. *Nere oinak* eta zure azala bat dira elkartzen garenean. Eta *nahi lukete* horrela luzaroan jarraitzea. *Dantzik ederrena ongi* bete ahal izateko elkarren beharra dugulako.

Zuretzat azkeneko hitz hauek *nere maite polit paregabea,* zuretzat eta zuentzat.
Su ta gar maitasunez natorkizue eskeintzera. Agur xume bat besterik ez.

(Agurra kantaren letran oinarritua)

Doinua: Lurraren pean sartu ninduten



HODEI MUNDUATE ETXEBERRIA
Elorri bertso-eskolako kidea

Esnatzerako itxaroten dut
noiz iritsiko arratsa,
goiz nekagarri baten ahanztea
alkohol eta ke kiratsa
nire ametsak gaurdaino dirau
hartuz memorian hautsa
gaurko txarra da biharko ona
finko daramat norantza
gero batean dut etorkizun
hobe baten esperantza
ez da iristen gure atera
konponbide baten trena
gaur espero den guztitik ez da
beteko bihar herena
poztasun baten bila gabiltza
luze iraungo duena
poltsikoaren betetzea da,
derrigorrezko lorpena
Erabat dugu desitxuratu
zorionaren izena



EUSKARA, BIHOTZETIK EZPAINETARA

Barruan daramazu kirol zaletasuna,
onena emateko gaitasuna, ahaleginduz gozatzekoa.
Eta barruan daramazu euskara ere,
kirola barrutik bizitzeko.

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Bilbao

www.bilbaoeuskaraz.eus

Zentzuz erosi.

Ondo informatu zaitez. Ezagutu zure eskubideak.

Baztertu estereotipoak.



Zeu zara zure *influencer* onena.

#KontsumitzenJakin

kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO